



## Hezkuntzarako COVID-19 koordinazio batzorde teknikoa

### 8. BILERA - 2021eko MARTXOaren 16a

#### PARTE-HARTZAILEAK:

Nafarroako Eskola Kontseiluko Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako lan-batzordeak 8. bilera egin zuen 11:00etan bideokonferentzia bidez. Han ziren ordezkari hauek: Hezkuntza Departamentuaren aldetik, Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria, Luis Calatayud Hezkuntzako Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria, (Alberto Urrutia Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko zuzendariak ezin parte hartu adierazi du); Osasun Departamentuaren aldetik, Aurelio Barricarte Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzuko, Arantxa Legarra Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzuko; Batzorde Iraunkorraren aldetik, LABeko Mikel Lizaso eta STEILASko Arantxa Ruiz Vidorreta, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkariak, FSIE-SEPNAko Laura Sanzol, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkaria, Herrikoako Noelia Echarri, ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkaria, CONCAPAko Teresa Modol, ikastetxe itunduetako guraso-elkarteen ordezkaria (Antonio Iriarte idazkariak eta Jorge Lanchas ikastetxeetako entitate titularren ordezkariak ezin parte hartu adierazi dute); María Lourdes García Roncal, Unibertsitateko Zerbitzuko; Iosu Mena IZE-Institutu Zuzendarien Elkarteko lehendakaria; eta Pedro Rascón NEK-Nafarroako Eskola Kontseiluko kidea. Batzordeburu, Manuel Martín NEK-ko burua.

#### Gai-zerrenda:

1. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak.
  2. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak.
  3. Jarduera presentziala burutzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.
  4. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
- 
1. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak.

Aldi labur horretan, ikusten da gaur egun konfinatuta dauden ikasleen ehunekoak % 1,03 dela, otsailaren 11ko % 2,59ren aldean. Beraz, ikasle konfinatuen kopurua nabarmen jaitsi da, otsailean 1605 ikasle konfinatu izatetik gaur egun 652 izatera igaro baita, Nafarroako gizarte-bizitzako kasuen jaitsieraren adierazgarri. Gaur arte konfinamenduak eragindako taldeen kopuru metatua 1397 da, eta konfinamenduak eragindako ikasleena, berriz, 27900.

2. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak. Jarduera presentziala burutzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.

**Hezkuntzako Informazio Sistemen Zerbitzuko Luis Calatayudek** bi gai garrantzitsu jorratu ditu, HERRIKOA eta SEPNAren kontsultei erantzunez:

- **Deskonfinamendu-mezuei eta familiei eta ikastetxeei jakinarazteari buruz**, berrogeialdia amaitzeagatik alta duten ikasleak berehala ikastetxera itzul daitezten. Ildo horretan, bi jardunbide adierazi ditu:

- **Epe laburrean**, Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioa; beraz, alta emanda dauden ikasleak ikasgelara itzuli ahal izanen dira, ikastetxeak deskonfinamendu-jakinarazpena jaso duen kontuan hartu gabe.
- **Epe ertainean**, martxoaren 31rako beranduenez, kasu positiboren bat duten ikasleen gaineko esku-hartzea. Negatibo-ziurtagiria edo alta-ziurtagiria egiteko Pediatriarekin irekitako kanala ez zebilenez, alta epidemiologikoaren SMS bat bidaliko zaio familiari edo alta hori duen ikasle adindunari; egiaztagiri horrekin, ikasgelan edo ikastetxean sartu ahal izanen da.
- **Jolas-orduan haur-hezkuntzako ikasleek maskara erabiltzeari dagokionez**, Hezkuntzarako COVID-19 koordinazio batzorde teknikoak seigarren bileran (6. aktan) adierazi zuenez, Hezkuntza Departamentuaren konpromisoa da erabilera hori bideratzea. Idazkaritza Teknikoaren iritziz, maskara erabiltzeko foru agindua aldatu behar da. Horretarako, hilaren 22an, bilera bat egingen da Osasun Departamentuarekin, eta horren ondoren, aldaketaren edo berrespenaren berri emango da. Era berean, erabilera komunitarioko materiala erabiltzeari buruz hitz egingen da.

Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendariak honako hau jakinarazi du:

- **Maskarek dagokienez**: Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko irakasle eta laguntzako langileek aurrerantzean FFP2 maskarak erabili beharko dituzte. Gainerako hezkuntza-zikloetan, irakasleek maskara kirurgikoak erabiliko dituzte.
  - Hezkuntza Departamentua maskara berriak banatzen hasi da Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasle eta laguntzako langileei. Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak adierazi dute irakasleei eta laguntzako langileei eman behar zaien maskara mota aldatu behar dela. Beraz, hemendik aitzina Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko langile guztiek (maskararik gabe dauden hurrekin lan egiten dutenek) FFP2 motako maskarak erabili beharko dituzte eta gainerako langileek IIR maskara kirurgikoak.
  - Maskaren banaketa astelehen honetan (martxoaren 15ean) hasi da, eta hurrengo astelehenean (martxoaren 22an) amaituko da; langile guztiek behar den maskara jantzi beharko dute, maskarak ikastetxean jaso eta banatu bezain pronto.
  - Era berean, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei jakinarazi die aurretik banatutako eta erabili gabeko maskara higienikoak gorde egin beharko direla, gero beste toki batera eramateko.
  - Nafarroako ikastetxeetan eta unibertsitateetan COVID-19k eragindako osasun-krisiagatik maskarak erabiltzea honako honetan dago araututa: Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren abuztuaren 28ko 40/2020 Foru Agindua. Foru agindu horren 4.1 apartatuak zehazten du ikasgeletan maskarak nahitaez erabili beharko dituztela irakasle guztiek eta laguntzako langileek. Orobat, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak eta laneko arriskuen prebentzioko zerbitzu

- teknikoen hezkuntza maila bakoitzerako gomendatzen duten maskara mota erabili behar da.
- IZE-Institutu Zuzendarien Elkarteko Iosu Menak galdetu du ea FPP2 maskara erabil daitekeen maskara kirurgikoaren erabilera esleiturik duen lanpostu batean. Eneko Ardaizek erantzun du Departamentuak lanpostu bakoitzerako definitutako erabilera bete behar dela.
  - STEILASko Arantxa Ruiz de Vidorretak esan du nahasmena dagoela hainbeste irizpide-aldaketarengatik. Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzuko Aurelio Barricartek jakinarazi du ez zela irizpidea aldatu, irizpidea bera dela: ahalik eta segurtasun handiena bilatzea irakasleentzat birusaren intzidentziari dagokionez. Orain, babes handieneko irizpideari eutsiz, maskara babesgarriagoak banatzea erabaki da, COVID-19aren andui berriak kutsakorragoak eta arriskutsuagoak direla frogatu baita. Beraz, andui berriekin kutsatzea prebenitu nahi da, kontuan harturik pandemia aldakorra dela. Eneko Ardaizek gogorarazi du berritasun hori aurreko informazioaren ondorio dela.
  - CONCAPAko Teresa Modolek maskara garden baten homologazioari buruz galdetu du, eta zergatik ez den Nafarroan homologatzen autonomia-erkidegoren batean homologatu dena. Enekok esan du erabaki hori ez dela Hezkuntza Departamentuarena, baizik eta prebentzio-zerbitzuarena, Osasun Departamentuaren oniritziarekin. Aurelio Barricartek esan du ziurtapen-arauak bete behar dituztela maskara gardenek baimena jasotzeko. Hezkuntza-arriskua osasun-arriskua baino handiagoa den baloratu behar da. Azterketak eta konparazioak kontuan hartuta hartzen dira erabakiak, transmisioari dagokionez ez baitago behin betiko ezer. Irizpideak hezkuntza-onuraren eta osasun-arriskuaren arteko balantzeak dira, eta, oraingoz, erabaki horiek hartu dira.
- **CO<sub>2</sub> neurgailuak**. Ikastetxeetan banatu dira. Bideokonferentzia egin zen erabilerari buruz, eta datorren astean berriz lan egingen da ikastetxeei informazioa helarazteko, zalantzak argitzeko. Zerbitzuak duen informazioaren arabera, ikastetxeak pozik daude hezkuntza-espazioen aireztatena egokitzeko neurri honekin. Kokatzeko jarraibideak eman dira, eta zein gelatan den egokiagoa adierazi da.

**Unibertsitate Zerbitzuko María Lourdes García Roncalek** jakinarazi du bere esparrutik, oraingoz, albiste guztiak positiboak direla. Oso kasu gutxi detektatu dira, eta jarduera presentziala da lehen unetik. Galdetu du ea zergatik ez diren unibertsitateko irakasleak txertaketan sartu, ikusirik unibertsitatez kanpoko hezkuntzako langileak sartu direla. Aureliok esan du funtsezko langileak sartu direla, eta lehen eta bigarren hezkuntzako ikasgelak direla funtsezkoak, 0-6 eta batxilergoaz gain.

### **Txertoari buruzko galderak:**

SEPNAko Laura Sanzolek galdetu du ea zergatik dauden eszedentziak eta aldi baterako ezintasunak txertaketa-zerrendatik kanpo, garbiketako langileez gain. Hezkuntzako Informazio Sistemen Zerbitzuko Luis Calatayudek zehaztu du hezkuntza publikoan hori ez dela gertatzen, eta itunpeko ikastetxeen kasuan, ikastetxe bakoitzak erabaki duela



zerrenda, eta horietako batzuek ez dituztela langile horiek sartu, baina beste ikastetxe batzuek bai.

Aurelio Barricartek jakinarazi du AstraZenecaren txertaketa etetearen ondorioz ez dela txertaketa eten. Adin-taldearen arabera txertoa jarriko dela adierazi du, 55 urtetik gorakoei taldez aldatzeko aukerarik eman gabe, talde horretan txerto hori ez delako baimentzen.

CONCAPAko Teresa Modolek lote akastunari buruz galdetu du, ea lote horrekin txertatutako pertsonen jarraipena egin daitekeen. Aurelio Barricartek argitu du marka horren lote guztietarako dela kautela, ez bakarrik akastunerako. Ez da pertsonen jarraipena eginen; izan ere, 17 milioi txerto jarri dira, eta 11 kasu baino ez daude. Txertatu ondoko 3. eta 14. egunen bitartean agertu dira. Sendagai guztiek izan dezakete arriskua, eta kasu zehatz honetarako, botika berri bat jartzen hasten denean bezala, farmakozaintzako sistema bat ezarri da, kasu hori zainduko duena. Ez da ikara sorrarazi behar, ez baitago arrazoirik. Behin betiko erabakirik ez da planteatuko, ez Europan, ez Espainian, ez Nafarroan, 2. dosia jartzeko unera arte (maiatzean). Data hori heldu aurretik aztertuko da ea kautela altxatzen den edo bigarren dosia beste marka batekin jartzen den.

Teresa Modolek mendekotasuna (handia edo bestelakoa) duten ikasleei txertoa jarriko zaien argitzea nahi du. Aurelio Barricartek berriro azaldu du adinaren eta kontraindikazioen arabera eginen dela txertaketa. Zaintzaileei txertoa jarri zaie mendekoak badira, eta ez talde-immunitatea lortzeko, txertoek ez baitute transmisioa eragozten.

LABeko Mikel Lizasok argitzea nahi du zergatik duen andui britainiarrak eragin handiagoa transmisioan, protokoloaren neurriek behar bezala babestu beharko bailukete. Aurelio Barricartek argitu du transmisio handiagoa anduiaren beraren ondorio izan daitekeela, kutsatzeko ahalmen handiagoa duela, antza. Kutsatzeko ahalmena handitzen bada eta prebentzio-neurri berberekin jarraitzen baduzu, birusak eragin handiagoa izan dezake. Gainera, ikastetxeetan gertatzen dena ez da faktore nagusia, fokua ikastetxeetatik kanpo dago, ikusten ari garen bezala.

**Aurelio Barricartek** indize-kasu bakoitzaren bigarren mailako kasuak azaldu ditu, HERRIKOAK aurretik eskatu baitzuen. Hona hemen grafiko hori:



		CASOS SECUNDARIOS POR CADA CASO INDICE										
		10 Septiembre 2020-31 Diciembre 2020					1 Enero 2021-7 Marzo 2021					
		Población	Casos índice/semana	Casos secundarios en 4 días o menos	Casos secundarios entre 5 y 8 días	Casos secundarios después de 9 días o más	Total casos secundarios	Casos índice/semana	Casos secundarios en 4 días o menos	Casos secundarios entre 5 y 8 días	Casos secundarios después de 9 días o más	Total casos secundarios
Etapas Escolares	Infantil	18489	11,1	0,06	0,01	0,05	0,12	8,6	0,27	0,01	0,08	0,36
	Primaria	42607	49,4	0,15	0,06	0,11	0,32	24,6	0,25	0,02	0,08	0,36
	Secundaria	28298	0,9	0,03	0,01	0,02	0,06	1,0	2,78	2,00	0,89	5,67
	Bachillerato	8867	0,3	0,02	0,00	0,01	0,04	0,6	5,60	1,20	0,20	7,00
	Ciclos Formativos de	3233	0,3	0,04	0,01	0,02	0,07	0,0				0,00
	Ciclos Formativos de	700	0,0				0,00	0,0				0,00
	Educación Especial	663	0,1	0,00	0,00	0,00	0,00	0,1	0,00	0,00	0,00	0,00
	Formación Profesional	1317	0,1	0,00	0,00	0,00	0,00	0,1	3,00	0,00	2,00	5,00
	Otros	881	0,0				0,00	0,0				0,00

Ikus daitekeenez, oso eragin txikia du transmisioan, Batxilergoan izan ezik, adina baita elementu bereizlea.

Azkenik, erabaki da hurrengo bilera 2021eko apirilaren 20an izanen dela, 11:00etan, aparteko arrazoiengatik egun hori baino lehen egin behar ez bada, behintzat.

**Manuel Martín Iglesias**

Batzordeburua